# I. Atala / Sección I

# Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Administrazioa
# Administración Foral del Territorio Histórico de Bizkaia

## Foru Aldundia / Diputación Foral

### Xedapen orokorrak / Disposiciones generales

### Berrikuntza eta Ekonomi Sustapen Saila

**21/2004 FORU DEKRETUA, otsailaren 24koa, Bizkaiko Foru Aldundiarena, e-baltzuak plana 2004rako araupetu duena.**

Berrikuntza eta Ekonomi Sustapen Sailaren eginkizuna da Bizkaiko Lurralde Historikoko gizarte-beharrak asetzeko birbanatu ahal izango den enplegu egonkorra eta aberastasuna sortzen laguntzea. Horretarako, teknologia aldetik berritzaileak, ekonomia aldetik lehiakorrak eta jasangarriak eta gizarte aldetik erantzuleak izango diren enpresak sortzea eta finkatzea bultzatuko da.

Ildo honetako politiken oinarriak berrikuntza, kudeaketaren hobekuntza, enpresako pertsonen garapena, inguruak dituen gizarte beharrizanak eta garapen iraunkorra kontuan hartzen duten kudeaketa sistemak erabiltzea dira.

Berrikuntza eta Ekonomi Sustapen Sailaren helburua da dekretu honetan ezarritako laguntza programen onura jasotzen duten pertsona fisiko eta juridikoek garbi edukitzea ingumenaren arloko politikak abiarazi behar direla otsailaren 27ko Ingurumena Babesteko 3/98 Lege Orokorraren eta Batzar Nagusiek onetsitako 1999ko apirilaren 15eko Ingurumenerako Eskubideari buruzko Bizkaiko Adierazpenaren ildotik.

Bizkaiko Foru Aldundiak, 2002ko azaroaren 26an egin zuen bileran, Bizkaia informazioaren gizartean Plana onetsi zuen, hain zuzen ere 2003-2005eko hirurterako. Plan honek Bizkaiko informazioaren gizartearen arloan lan egingo duen atalak biltzea ez ezik berariaz Bizkaiko Foru Aldundiak eta bere inguruak jarduteko diren atalak ezartzen ditu: a) Bizkaiko azpiegiturak; b) Foru Aldundiaren eta bere zerbitzu horizontalen azpiegiturak; c) Bizkaiko Foru Aldundiaren arlokako aldeak; d) enpresen arloa eta f) Udal eta toki arloa.

Enpresaren arloak lurraldearen sustaketa ekonomikoari dagokionez duen garrantzia eta, ondorioz, enplegua sortzeari dagokionez, funtsezkoa eta erabakiorra da eta, horregatik erabateko lehentasuna duen arlotzat jo da planaren helburu orokorren arteko bigarrenaren barruan.

Ildo horretatik, Berrikuntza eta Ekonomi Sustapen Sailaren jarduteko ardatzetako bat etorkizuneko gizarteranzko trantsizioa sustatzea da, informazioaren gizartearen arloko eta beste funtsezko arlo batzuetako jarduketa estrategikoen bitartez, gure enpresa-inguruneko giza kapitala elkarlehia eta etorkizuneko tresna bezala bultzatuz eta sareko lankidetzaren kultura ezarriz.

E-baltzuak Planak Erregioen Garapenerako Europako Funtsaren finantzakidetasuna du. Ekimen horrek laguntza-neurriak hartzea du helburu orokorra, ETEek komunikazio eta informazioaren teknologiak ahalik ea eraginkortasun handienaz erabili ahal izan ditzaten, merkataritza elektronikoa pizteko aldeko ingurunea bultzatuz eta komunikazio eta informazioaren teknologien arloko ezagupenak ematen lagunduz.

Bada, plan horren barruan Berrikuntza eta Ekonomi Sustapen Sailak ondo ezagutzen du zein den teknologia berriak jende guztiaren esku jartzearen garrantzia eta horregatik ahaleginak egiten ditu enpresek beti ezgaitasunak dituzten taldeek ere iristeko proiektuak egin ditzaten.

### Departamento de Innovación y Promoción Económica

**DECRETO FORAL 21/2004 de 24 de febrero, de la Diputación Foral de Bizkaia, por el que se regula para el año 2004 el plan e-baltzuak.**

La misión del Departamento de Innovación y Promoción Económica es contribuir a la creación de empleo estable y riqueza que pueda ser redistribuida para satisfacer las necesidades sociales del Territorio Histórico de Bizkaia a través del impulso a la creación y consolidación de empresas tecnológicamente innovadoras, económicamente competitivas y sostenibles y socialmente responsables.

Estás políticas están fundamentadas, en la innovación, la mejora de la gestión, el desarrollo de las personas de la empresa y la adopción de sistemas de gestión sensibles a las necesidades sociales del entorno y coherentes con el desarrollo sostenible.

Es intención del Departamento de Innovación y Promoción Económica que las personas físicas y jurídicas beneficiarias de los programas de ayudas que contemple este Decreto, sean conscientes de la necesidad de adoptar políticas medioambientales en la línea establecida por la Ley General de Protección de Medio Ambiente 3/98 de 27 de febrero y por la Declaración de Bizkaia sobre el derecho al Medio Ambiente de 15 de abril de 1999, aprobada por las Juntas Generales.

La Diputación Foral de Bizkaia, en reunión de 26 de noviembre de 2002 aprobó el Plan Bizkaia en la sociedad de la información con el horizonte temporal 2003-2005. Este plan, además de recoger un área específica dedicada a la sociedad de la información de Bizkaia, contempla las áreas de actuación, propias de la Diputación Foral de Bizkaia y su entorno: a) Las infraestructuras de Bizkaia; b) Las infraestructuras de la Diputación Foral y sus servicios horizontales; c) Areas sectoriales de la Diputación Foral de Bizkaia; d) Sector empresarial y f) Sector municipal y local

La importancia del sector empresarial para la activación económica del territorio y, por tanto, para la creación de empleo, es decisiva, y por ello se le ha considerado como una de las áreas de atención prioritaria, dentro del segundo de los objetivos generales del plan.

En este sentido una de las líneas de actuación del Departamento de Innovación y Promoción Económica es promover la transición hacia una sociedad de futuro mediante actuaciones estratégicas en áreas clave tales como la sociedad de la información, reforzando el capital humano de nuestro entorno empresarial y social como herramienta de competitividad y de futuro y estableciendo una cultura de colaboración en red.

El plan e-baltzuak, cofinanciado por el Fondo Europeo de Desarrollo Regional (FEDER) tiene como objetivo general adoptar medidas de apoyo para que las Pymes puedan utilizar las tecnologías de la información y la comunicación con la máxima eficacia, fomentando un entorno favorable para estimular el comercio electrónico y contribuyendo al suministro de conocimientos en materia de tecnologías de la información y la comunicación.

En el marco de este plan, el Departamento de Innovación y Promoción Económica consciente de la importancia de dar acceso universal a las nuevas tecnologías, anima a las empresas a tener en cuenta en sus proyectos la accesibilidad para los colectivos con discapacidades.

Halaber, e-baltzuak planaren barruan Bizkaiko enpresetan Zaintza Teknologikoa eta Lehiatzeko Adimena sustatzeko balioko duen jarduteko esparrua sarzen da, eta horiei esker zilegi izango dute informazio eta komunikazioen teknologia berriak erabiliz informazio estrategikoetara iristea.

Bizkaiko Lurralde Historikoaren 2004rako Aurrekontu Orokorrak indarrean jarri dira. Hori dela eta, plan honen ibilera araupetzen duen arautegia eman behar da.

Adierazitakoa dela bide, Berrikuntza eta Ekonomi Sustapeneko foru diputatuak proposatu eta Foru Aldundi honen Gobernu Kontseiluak 2004ko otsailaren 24ko batzarraldian eztabaidatu eta onetsi ondoren, hauxe

XEDATU DUT:

**Lehenengo artikulua.—*Helburua***

Dekretu honen xedea Bizkaiko Foru Aldundiak eman beharreko laguntzak ezarri eta araupetzea da. Laguntzon eta e-baltzuak Planaren bitartez ondokoak sustatuko dire enpresetan:

– Negozio elektronikoaren ezarpena.

– Eta zaintza teknologikoa.

**Bigarren artikulua.—*Onuradunak***

Jarduera nagusitzat dekretu honen eranskinean adierazten diren EISNko epigrafeetan agertzen direnetako edozein duten enpresek heldu ahal izango diete dekretu honetara bilduriko onurei, baldin eta berariazko nortasun juridikoa badute eta honako beharkizunok betetzen badituzte:

a) Euren elkargo eta zerga-egoitza Bizkaiko Lurralde Historikoan izatea.

b) Lantegi bat, gutxienez, Bizkaiko Lurralde Historikoan kokaturik egotea

c) Bere plantilan 100 langile baino gehiago ez izatea.

d) Ondoko bi mugotako bat ez gainditzea: 14.000.000 euroko urteko negozio kopurua edo 10.000.000 euroko balantze orokorra.

e) Egun arteko zerga-betebeharrak nahiz herri zuzenbidezko bestelakoak eta Gizarte Segurantzakoak beteta edukitzea.

Arestiko a), b) eta e) baldintzok ondoko era honetara egiaztatu beharko dira: eskabidea aurkeztuz zein emakida jasotzen den unean, eta bai aintzatetsi eta ordainketa egiten den unean ere.

Ezin dira onuradunak izan herri sozietateak eta herri zuzenbideko erakundeak; halaber, izaera horretatik salbuetsita daude irabazteko asmorik gabeko fundazioak eta elkarteak.

2. Onuradun izateari eta tramitazio prozedura eta ordainketari dagozkien baldintzak foru dekretu honen eranskinean ezarritakoak dira.

Dekretu honen onuradun izan nahi dutenen eskabideak lehiaketa arruntaren araubidez aukeratuko dira.

**Hirugarren artikulua.—*Diruz lagungarria***

3.1. Negozio elektronikoa.

3.1.1. Diruz laguntzeko modukotzat hartuko dira eskatzailearen enpresa espezializatu lokabeen edo erakundeen bitartez egindako soluzio informatikoaren garapenerako inbertsioak, ekipamenduko inbertsioak eta prestakuntza gastuak, enpresaren jarduketa batzuek ekartzen dituztenak. Jarduketa horiek, negozio elektronikoa ezartzekoak, honakook dira:

– Saldu baino lehenagoko zerbitzua: sareko eskaera-sistema

– Sareko salmenta: eredua, ukituriko prozesuak, stock-en kudeaketa eta sarean kobratzeko sistemak garatzea.

– Sareko erosketak: erosketa elektronikoaren metodoa, ukituriko prozesuak eta sarean ordaintzeko sistemak garatzea.

– Bezeroari jaramon egiteko zerbitzuak: Bezeroari jaramon egiteko sistemaren kudeaketa.

– Saldu osteko zerbitzu elektronikoa: dokumnetazio pertsonalizatua deskargatzea, laguntza teknikoa.

Así mismo el plan e-baltzuak incluye un área de actuación destinada a promover la Vigilancia Tecnológica e Inteligencia Competitiva en las empresas de Bizkaia que les permita el acceso a la información estratégica mediante la utilización de las tecnologías de la información y las comunicaciones.

Habiendo entrado en vigor los Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Bizkaia para 2004, , procede dictar la normativa que regule el funcionamiento de este Plan.

En su virtud, a propuesta del Diputado Foral de Innovación y Promoción Económica, y previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno de la Diputación Foral, en sesión del día 24 de febrero de 2004,

DISPONGO:

**Artículo primero.—*Objeto***

El objeto de este Decreto es el establecimiento y regulación de las ayudas a conceder por la Diputación Foral de Bizkaia, que a través del Plan e-baltzuak están destinadas a promover en las empresas:

– La implantación del negocio electrónico.

– Y la vigilancia tecnológica.

**Artículo segundo.—*Beneficiarias***

Podrán acceder a los beneficios contenidos en el presente Decreto aquellas empresas con personalidad jurídica propia cuya actividad principal se incluya en alguno de los epígrafes de la C.N.A.E. que se señalan en el Anexo al presente Decreto y que cumplan los siguientes requisitos:

a) Que tengan su domicilio social y fiscal en el territorio histórico de Bizkaia.

b) Que al menos un centro de producción esté ubicado en el territorio histórico de Bizkaia.

c) Que su plantilla no exceda de 100 personas.

d) Que no superen uno de los dos límites siguientes, 14.000.000 euros de volumen de anual de negocios o 10.000.000 euros de balance general.

e) Encontrarse al corriente de sus obligaciones tributarias y demás de derecho público y frente a la Seguridad Social.

Las condiciones a), b) y e) deberán acreditarse tanto en la presentación de la solicitud como en el momento de la concesión, en el reconocimiento y en el pago.

Quedan excluidas de la condición de beneficiario las Sociedades Públicas y Entidades de Derecho Público, así como las fundaciones y asociaciones sin ánimo de lucro.

2. Las condiciones relativas a la cualidad de beneficiaria, procedimiento de tramitación y pago, son las que se establecen en el Anexo de este Decreto Foral.

El régimen de selección de las solicitudes concurrentes a los beneficios del presente Decreto será el de concurrencia simple.

**Artículo tercero.—*Hecho subvencionable***

3.1. Negocio electrónico.

3.1.1. Tendrán la consideración de subvencionables las inversiones en el desarrollo de la solución informática realizada a través de entidades o empresas especializadas independientes de la solicitante, las inversiones en equipamiento y los gastos de formación, a que den lugar las siguientes actuaciones de la empresa, conducentes a la implantación del negocio electrónico:

– Servicio pre-venta: Sistema de pedidos en la red.

– Venta en la red: Desarrollo del modelo, los procesos afectados, la gestión de stocks y los sistemas de cobro.

– Compras en la red: Desarrollo del método de compra electrónica, los procesos afectados, y los sistemas de pago.

– Servicios de atención al cliente: Desarrollo del sistema de gestión y atención al cliente.

– Servicio post-venta electrónico: Descarga de documentación personalizada, asistencia técnica.

– Sareko logistika: garraio-zerbitzua, eskaeren jarraipena eta emate-epeak.

– Segurtasuna: sareko segurtasunerako sistema zehaztu eta ezartzea.

– Intranet/Extraneta: enpresako sare pribatuaren zehaztu, aztertu eta garatzea, beti ere TCP/IP protokoloak betez.

3.1.2. Gehigarri moduan eta gehienez plantilan 10 langile dituzten enpresentzat, diru-laguntza jasotzeko xedea izango dira aplikazioen zerbitzuetako hornitzaileek zuzkituko dituzten online motako software zerbitzuak kontratatzeagatik hasierako sei hileetan sortuko diren gastuak, beti ere delakoz erbitzu horiek web aplikazioen bidez eskaintzen direnean.

Ez da diruz laguntzeko modukotzakoa izango web orrialdeak egin eta mantentzea, baldin eta, gutxienez, aurreko zatietako bat hartzen ez badute barnean. Halaber, ezin dute diru-laguntzarik jaso 2001, 2002 edo 2003 urteko e-baltzuak Dekretuaren bidez laguntza jaso duten proiektuen aldarazpenek.

Ez dira diruz laguntzeko modukotzakoa izango enpresaren jarduerarekin bat ez datozen proiektuak.

3.2. Zaintza Teknologikoa.

Diruz laguntzeko modukoak izango dira jarraian adieraziko diren jarduketa horien emaitzako kostuak, baldin eta erakunde kudeatzailea den Centro de Diseño Industrial, S.A. (DZ) enpresarekin lankidetzan egiten badira.

– Zaintza jarduketak. Enpresan, unean-unean, informazio zerbitzu aurreratuak integratzeko gastuak horretarako inguruaren eta merkatuaren ebaluazioa eta tekonologiaren azterketa eginez; enpresako erabakiak hartzeko egokiak behar dute izan.

– Enpresako informazio sistemak. Informazio sistema pertsonalizatuak, enpresak bere ekoizpen-jarduera garatzeko dituen beharrizanei egokituta burutzen direnak.

– Diagnostikoa. Informazioa kudeatzeko edo hala enpresaren baruan nola kanpoan behar den informazio estrategikoaren sistemen esparruko beharrizan zehatzak ebaluatzeko, eta profilak egiteko gastuak.

– Ezarpena. Antzeman diren beharrizan guztiak edo horietatik batzuk ezartzeko inbertsioak, hasi fluxuen eta informazioa kudeatzeko sistema propioen ezarpenetik eta zaintza sistema pertsonalizatuetan bukatu arte, hala norberaren informazioaren barrukoak nola inguruko informazioari buruzko kanpokoak, eta, horiek guztiak, informazio eta komunikazioen teknologietan oinarrituta eta softwarea egokituz. Kontzeptu honengatik ematen diren laguntzerara iristeko aurretiazko baldintza da aurreko idatz-zatian adierazi den diagnostikoa egitea.

3.3. Honako dekretu honetan ezarri diren jarduketak egiteko zenbatetsiko diren epeak hauek dira:

E-baltzuak 48/2003 Dekretuan ezarri diren jarduketak egiteko laguntzak izan zituzten enpresen kasuan, delako dekretu horretan lagundu zen proiektua bukatu zen datatik zenbatuko da eta, hori gora behera, 2003ko urriaren 1etik aurrera.

E-baltzuak 2003 Dekretuan ezarri diren jarduketak egiteko laguntzak izan ez zituzten enpresen kasuan, 2003ko urriaren 1etik hasita.

**Laugarren artikulua.—*Laguntzen zenbatekoa***

4.1. Negozio elektronikoa.

Hirugarren artikuluaren 1. idatz-zatian adierazi diren onurak itzuli beharrik gabeko diru-laguntzak dira, diren lanen %50 joko dutenak, hain zuzen.

Hirugarren artikuluko 3.1.2. idatz-zatian ezarri diren diru-laguntzak jasotzeko moduko inguruabarretan onurak, kasu honetan ere, itzuli beharrik gabeko diru-laguntzak izango dira enpresak egin duen gastuaren %50ean, eta gehienez munta 600 eurokoa izango da enpresa bakoitzeko.

4.2. Zaintza teknologikoa.

Hirugarren artikuluaren 2. idatz-zatian adierazi diren onurak itzuli beharrik gabeko diru-laguntzak dira, diren lanen %50a joko dute-

– Logística en la red: Servicio de transporte, seguimiento de pedidos, plazos de entrega.

– Seguridad: Definición e implantación del sistema de seguridad en la red.

– Intranet/Extranet: Definición, análisis y desarrollo de la red privada de la empresa siguiendo los protocolos TCP/IP.

3.1.2. Adicionalmente para empresas cuya plantilla no exceda de 10 personas tendrán la consideración de hecho subvencionable los gastos que se generen durante los primeros seis meses por la contratación de servicios de software online suministrados por proveedores de servicios de aplicaciones siempre y cuando dichos servicios se ofrezcan a través de aplicaciones web.

No tendrán la consideración de subvencionable la realización y mantenimiento de páginas web, que no incluyan al menos uno de los apartados anteriores. Tampoco serán consideradas subvencionables las modificaciones de proyectos que hayan sido apoyados a través del Decreto e-baltzuak de los años 2001, 2002 o 2003.

No tendrán la consideración de subvencionables aquellos proyectos que no tengan coherencia con la actividad de la empresa.

3.2. Vigilancia Tecnológica.

Tendrán la consideración de subvencionables los costes derivados de las siguientes actuaciones que sean realizadas en colaboración con la entidad gestora Centro de Diseño Industrial, S.A. (DZ).

– Actuaciones de Vigilancia. Los gastos generados por la integración puntual en la empresa de servicios avanzados de información, resultantes de la evaluación y alerta de tecnología, mercado y entorno; aptos para la toma de decisiones empresariales.

– Sistemas de Información Empresarial. Sistemas de información personalizados que se desarrollan adaptados a las necesidades de la empresa en el desarrollo de su actividad productiva.

– Diagnóstico. Los gastos de evaluación de necesidades concretas de sistemas de gestión de información o de la información estratégica necesaria tanto dentro como fuera de la empresa con elaboración de perfiles.

– Implantación. Las inversiones en implantación de todas o alguna de las necesidades detectadas, desde establecimiento de flujos y sistemas propios de gestión de información hasta Sistemas de Vigilancia personalizados, tanto internos de la información propia de la empresa, como los externos sobre la información del entorno, todos ellos basados en las Tecnologías de la Información y las Comunicaciones y con adaptación de software. Será requisito previo para poder optar a la ayuda por este concepto el haber realizado el diagnóstico del apartado anterior.

3.3. Los plazos a computar para la realización de las actuaciones contempladas en el presente Decreto serán:

Para las empresas que se acogieron a las ayudas contempladas en el Decreto e-baltzuak 48/2003, se contará a partir de la fecha de finalización del proyecto subvencionado en dicho Decreto y en cualquier caso a partir del 1 de octubre de 2003.

Para las empresas que no se acogieron a las ayudas contempladas en el Decreto e-baltzuak 2003 a partir del 1 de octubre de 2003.

**Artículo cuarto.—*Cuantía de las ayudas***

4.1. Negocio electrónico.

Para los hechos subvencionables contemplados en el artículo tercero apartado 3.1.1, los beneficios serán subvenciones no reintegrables del 50% del coste de los trabajos descritos.

En el caso de los hechos subvencionables contemplados en el artículo tercero apartado 3.1.2, los beneficios serán así mismo subvenciones no reintegrables del 50% del gasto incurrido por la empresa con un máximo de 600 euros por empresa.

4.2. Vigilancia Tecnológica.

Para los hechos subvencionables contemplados en el apartado 2 del artículo tercero los beneficios serán subvenciones no

nak, hain zuzen. Gehieneko mugak ondoko hauek izango dira:

– Zaintza jarduketak. Jarduketa egiteko gehieneko diru-laguntza 1.500 eurokoa da, eta enpresak gehienez 6.000 euro jaso ditzake.

– Diagnostikoa. Atal honetan, gehieneko diru-laguntza 3.000 eurokoa da

– Ezarpena. Enpresak jaso dezakeen gehieneko diru-laguntza 6.000 eurokoa da.

4.3. Gehieneko zenbatekoa.

Dekretu honen babespeko enpresako gehieneko diru-laguntza 20.000 eurokoa izango da.

**Bosgarren artikulua.—*Minimis***

Honako dekretu honetan jasotzen diren laguntzak edo subentzioak Batzordearen 2001eko urtarrilaren 12ko 69/2001 (EB) Araudian xedaturik dagoena dute manuzko araudi hori, 2001eko urtarrilaren 13an Europako Erkidegoen Aldizkari Ofizialean argitaratu zena, minimis laguntzei EB Tratatuaren 87. eta 88. artikuluen aplikazioari buruzkoa da; horrenbestez, arautegi hori ez betetzeak erantzukizun penala, zibila eta administratiboa ekarri ahalko lioke enpresa urratzaileari. Europar Batasunak ezarririk duenaren arabera, edozein enpresari ematen zaizkion minimis laguntzen guztirako kopuruak ezin gainditu izango du 100.000 euroko zenbatekoa hiru urteko epealdian. Muga hori laguntzaren era edo lortu asmo den objektua edozein delarik aplikatuko da.

**Seigarren artikulua.—*Diru-laguntzen egilespena eta ordainketa***

1. Eskabideak Berrikuntza eta Ekonomi Sustapen Saileko Berrikuntzako eta Ekonomi Sustapeneko Zuzendaritza Nagusiak tramitatuko ditu, Enpresa Estrategia Zerbitzuaren bitartez, Berrikuntza eta Ekonomi Sustapeneko foru diputatuak ebatziko dituela berariazko eta banakako ebazpena emanez, aipatutako Zuzendaritza Nagusiak proposatuta.

2. Diruz laguntzen diren zerbitzu eta proiektuen izaera kontutan izanik, diru-laguntzaren egilespena eta ordainketa egin aurretik, Berrikuntza eta Ekonomi Sustapen Sailak gastua diruz lagungarria dela eta zenbatekoa itundutako lanen edukiari egokitzen zaiola egiaztatuko du. Aipaturiko egiaztapena burututakoan, ezarritako baldintzak betetzen dituzten agirien araberako egilespen eta ordainketa gauzatzeari ekingo zaio.

3. Diru-laguntza horiek proiektua bukatu aurretik ordain daitezke, aurrez zortzigarren artikuluaren 1.3. idatz-zatian adierazten den dokumentazioa aurkeztuta.

4. Ezin dute, inola ere, diru-laguntzarik jaso dekretu honetan eskabideak aurkezteko ezarri den epea bukatu aurretik hasita ez dauden proiektuek.

5. Diru-laguntza emakidatzerako aintzat harturiko baldintzetan aldaketaren bat gertatzen bada eta, orobat, nazioarteko zein nazioko beste Administrazio edo erakunde publiko nahiz pribatuek egiletsitako diru-laguntza gehiago biltzen badira, diru-laguntzari dagokion ebazpena aldarazi egingo da.

**Zazpigarren artikulua.—*Eskabideak aurkezteko epea eta era***

1. Eskabideak, behar bezala beteta, Internet bidez aurkeztu beharko dira, Bizkaiko Foru Aldundiko Berrikuntza eta Ekonomi Sustapen Sailaren www.berrikuntza.bizkaia.net izeneko web orrian dagoen eredua erabiliz, BizkaiBai sistemaren bitartez. Sistema hau abenduaren 11ko 3623/2000 Foru Dekretuak, Ogasuna eta Finantzak saileko foru diputatuarena, arautzen du, eta foru diputatu honen 3960/2002 Foru Dekretuak eguneratzen du, zuzenbideak bideratzen dituen gainerako bide guztiak erabiltzea gorabehera.

Aurrekoarekin bat, eskabideak Internet bidez aurkezteko enpresa interesatuek BizkaiBai zerbitzuan alta eman behar dute. Zerbitzu honen erregistroa Ogasuna eta Finantzak Saileko bulego nagusietan dago, Bilboko Kaputxinoen Bidea kaleko 2an. Bestela ere, sail honetako edozein bulegotara jo daiteke.

reintegrables del 50% de los costes externos de las actuaciones descritas, con los siguientes máximos:

– Actuaciones de Vigilancia. La subvención máxima por actuación será de 1.500 euros con un máximo de 6.000 euros por empresa.

– Diagnóstico. En este apartado la subvención máxima asciende a 3.000 euros.

– Implantación. La subvención máxima por empresa ascenderá a 6.000 euros.

4.3. Cuantía máxima.

La subvención máxima por empresa a otorgar al amparo del presente Decreto será de 20.000 euros.

**Artículo quinto.—*Mínimis***

Las ayudas o subvenciones contempladas en el presente Decreto están sujetas a lo dispuesto en el Reglamento (CE) nº 69/2001 de la Comisión de 12 de enero de 2001, publicado en el Diario Oficial de las Comunidades Europeas de 13 de enero de 2001 relativo a la aplicación de los artículos 87 y 88 del Tratado CE a las ayudas de Minimis y en consecuencia el incumplimiento de esa normativa, podría significar responsabilidad penal, civil y administrativa para la empresa infractora. Según lo establecido por la Unión Europea, la ayuda total de Minimis concedida a cualquier empresa no deberá exceder de 100.000 euros en un período de tres años. Este límite se aplicará independientemente de la forma de la ayuda o el objeto perseguido.

**Artículo sexto.—*Otorgamiento y pago de subvenciones***

1. Las solicitudes serán tramitadas por la Dirección General de Innovación y Promoción Económica, Servicio de Estrategia Empresarial del Departamento de Innovación y Promoción Económica, y resueltas, mediante Resolución expresa e individualizada del Diputado Foral de Innovación y Promoción Económica a propuesta de la referida Dirección General.

2. Dada la naturaleza de los proyectos que se subvencionan, el otorgamiento y pago de la subvención se realizará en base a la comprobación por parte del Departamento de Innovación y Promoción Económica, de que el gasto tiene la consideración de hecho subvencionable, y que el importe económico se ajusta al contenido de los trabajos contratados. Una vez realizada la citada comprobación, se procederá al otorgamiento y pago en función de los documentos que cumplan los requisitos exigidos.

3. Las subvenciones se podrán abonar antes de la finalización del proyecto, presentando previamente la documentación que se enumera en el artículo octavo apartado 1.3.

4. En ningún caso serán subvencionables proyectos que no hayan sido iniciados con anterioridad a la fecha de finalización del plazo de presentación de solicitudes establecido en el presente Decreto.

5. La alteración de las condiciones tenidas en cuenta para la concesión de la subvención y en todo caso la obtención concurrente de subvenciones o ayudas otorgadas por otras Administraciones o Entes Públicos o privados, nacionales o internacionales dará lugar a la modificación de la resolución de la misma.

**Artículo séptimo.—*Plazo y forma de Presentación de Solicitudes***

1. La solicitud, debidamente cumplimentada en todos sus términos, deberá presentarse por Internet, mediante el formulario que figura en la página web del Departamento de Innovación y Promoción Económica www.berrikuntza.bizkaia.net, a través del sistema BizkaiBai, regulado por la Orden Foral 3623/2000, de 11 de Diciembre, del Diputado Foral de Hacienda y Finanzas, y actualizada en base a la Orden Foral 3960/2002, de 23 de Diciembre, del mismo Diputado Foral, sin perjucio de la utilización de cualquiera de los medios admitidos en Derecho.

De acuerdo con lo anterior, la presentación telemática de las solicitudes exigirá que con carácter previo las empresas interesadas se den de alta en el servicio BizkaiBai, cuyo registro se encuentra en las oficinas centrales del Departamento de Hacienda y Finanzas, sitas en la calle Camino Capuchinos número 2 de Bilbao, o en cualquiera de las oficinas descentralizadas de dicho Departamento.

Bestalde, erantsitako dokumentazioa Bizkaiko Foru Aldundiko Berrikuntza eta Ekonomi Sustapen Sailaren erregistroan aurkeztu beharko da (Obispo Orueta kalea, 6), hura irekita egon ohi den orduetan (8,30etatik 13,30etara), Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/92 Legearen 38. artikuluko 4. idatz-zatian ezarritako bestelako aurkezpen-bideak erabiltzeko kalterik gabe. Edozelan ere, erantsitako dokumentazioari eskabidearen sarrera-erregistroko zenbakia gehituko zaio. Zenbaki hau eskabidea internet bidez tramitatutakoan lortuko da.

2. Eskabideak aurkezteko epea foru dekretu hau indarrean jarriko den egunean bertan hasiko da, hau da, bere azken xedapenetatik lehenengoan ezarri den egun horretan, eta ondoko egunean bukatuko da:

2004ko ekainaren 30ean negozio elektronikoaren arloari dagokionez.

2004ko irailaren 30ean zaintza teknologikoaren arloari dagokionez.

**Zortzigarren artikulua.—*Dokumentazioa***

1. Programa honen onurei heldu nahi dien enpresek jarraian adierazten den dokumentazioa bidali beharko dute Berrikuntza eta Ekonomi Sustapen Sailera, aurreko artikuluan azaldutako epe eta eran; izan ere, dokumentazio hau eranskin bezala hartuko da dirulaguntza eskaeretan:

1.1. Enpresari dagokion dokumentazio administratiboa.

1.1.1. Hartzekodun fitxa, behar bezala beteta, baldin eta Bizkaiko Foru Aldundiak duen enpresaren banku-helbideraketa aldatu nahi bada.

1.1.2. Enpresaren zuzenbide publikoko betebeharrei eta Gizarte Segurantzakoei buruzko ziurtagiri gaurkotua

1.2. Era berean, aurkeztutako proiektuari buruzko agiri hauek ere aurkeztu beharko dira:

1.2.1. Sorrarazitako inbertsio eta gastuen fakturen fotokopia. Berauek legezko beharkizunak bete behar dituzte.

1.2.2. Bidezko den kasu guztietan, fakturen ordainketaren ziurtagiriak.

1.2.3. Proiektua deskribatzen den memoria. Bertan argi zehaztu behar da zein diren proiektuaren xedea eta faseak, hura ezartzeko zenbatetsitako denbora, langileen ordu kopurua, aholkularitza-kostua, eta hark dakartzan inbertsioak.

1.2.4. Erakundearen edo enpresa adituaren edo onuradunaren kontratuaren kopia, behar bezala egin den eta alde biek onartutako kontratuarena.

1.2.5. Proiektuaren memoria, hura bukatu ostekoa.

1.3. Laguntza proiektua bukatu aurretik ordaindu ahal izateko, eskabidea egiten duen unean bertan enpresak ondoko hauek aurkeztu behar ditu;

1.3.1. 1.1. idatz-zatian ezarri den administrazioko dokumentazio osoa.

1.3.2. 1.2.3. eta 1.2.4. idatz-zatietan ezarri den dokumentazioa.

1.3.3. Idazki bat, modalitate honi atxikzeko eskabidea eginez eta berariaz proiektuaren amaierako eguna adieraziz.

Halaber, laguntza horren ordainketaren tramitazioa egin aurretik Foru Aldundi honen aburuz nahikoa ziango den bankuaren finanzta erakundearen abala aurkeztu behar du, aurreratu den laguntzaren zenbatekoa izango duena. Bada, ondore horretarako, Berrikuntza eta Ekonomi Sustapen Sailak eskabidea egin duen enpresari igorriko dion idazkiaren bidez, abal hori honako dekretu honi itsatsi zaion eredukoa aurkezteko agindeia egingo du.

Bankuko abalak aurkezteko azken mugaeguna 2004koa zaroaren 2a izango da.

Lanen bukaeran, enpresak espedientea osatuko du, gainerako agiriak aurkeztuz, 2005eko martxoaren 31a baino lehen beti ere.

2. Berrikuntza eta Ekonomi Sustapen Sailak aurkeztu den eskabidea behar bezala ulertu eta ebaluatzeko beharrezkoa izan dadin edozein agiri edo/eta informazio eskatu ahalko dio eskatzaileari.

Por su parte, la documentación anexa deberá presentarse en el registro del Departamento de Innovación y Promoción Económica (calle Obispo Orueta número 6 de Bilbao), dentro del horario de funcionamiento del mismo (de 8,30h. a 13,30h.), sin perjuicio de la presentación mediante cualquier otro de los medios previstos en el artículo 38.4 de la Ley 30/92, de 26 de Noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y Procedimiento Administrativo Común. En todos los casos, a la documentación anexa se le deberá incorporar el número de registro de entrada de la solicitud, que se obtendrá al tramitar la misma por vía telemática.

2. El plazo de presentación de solicitudes se abrirá el día de la entrada en vigor de este Decreto Foral, que figura en su Disposición Final Primera, y finalizará:

El 30 de junio de 2004 para el área de negocio electrónico.

El 30 de septiembre de 2004 para el área de vigilancia tecnológica.

**Artículo octavo.—*Documentación***

1. Las empresas que deseen acogerse a los beneficios de este programa deberán remitir al Departamento de Innovación y Promoción Económica, en los plazos y formas indicados en el artículo anterior, la siguiente documentación, que se considerará anexa a las solicitudes de subvención:

1.1. Documentación administrativa, relativa a la empresa.

1.1.1. Ficha de acreedor debidamente cumplimentada, para el supuesto en que deseen modificar la domiciliación bancaria, respecto de la información que obre en poder de la Diputación Foral de Bizkaia.

1.1.2. Certificado actualizado de sus obligaciones de derecho público y de Seguridad Social.

1.2. Asimismo, deberán ser aportadas fotocopias de los siguientes documentos relativos al proyecto presentado:

1.2.1. Fotocopia de las facturas de los gastos e inversiones ocasionados y que cumplan con todos los requisitos legales.

1.2.2. Justificantes de pago de las facturas, en todos los casos en que así proceda.

1.2.3. Memoria descriptiva de proyecto, en la que se especifique claramente el objeto del proyecto, sus fases, el tiempo estimado de implantación, el número de horas de personal, el coste de asesoramiento, las inversiones a que de lugar.

1.2.4. Copia del contrato entidad o empresa especialista-empresa beneficiaria debidamente formalizado y aceptado por ambas partes.

1.2.5. Memoria del proyecto una vez finalizado.

1.3. Para que la ayuda pueda abonarse antes de la finalización del proyecto, en el momento de la solicitud la empresa habrá de presentar:

1.3.1. La documentación administrativa completa, relacionada en el apartado 1.1.

1.3.2. La documentación de los apartados 1.2.3. y 1.2.4.

1.3.3. Un escrito solicitando acogerse a esta modalidad e indicando expresamente la fecha de finalización del proyecto.

Así mismo previamente a la tramitación del pago de dicha ayuda deberá presentar aval bancario o de entidad financiera suficiente a juicio de esta Diputación Foral por el importe de la ayuda anticipada, para lo cual el Departamento de Innovación y Promoción Económica requerirá mediante, escrito remitido a la empresa solicitante, la presentación del citado aval cuyo modelo se incorpora como anexo al presente decreto.

El plazo máximo para la presentación de los avales bancarios se fija en el 2 de noviembre de 2004.

A la finalización de los trabajos la empresa completará el expediente mediante la presentación de la documentación restante, en cualquier caso con anterioridad al 31 de marzo de 2005.

2. El Departamento de Innovación y Promoción Económica podrá requerir a la solicitante cuanta documentación y/o información complementaria considere necesaria para la adecuada comprensión y evaluación de la solicitud presentada.

AZKEN XEDAPENAK

**Lehenengoa.—*Indarrean jartzea***

Honako foru dekretu hau berau «Bizkaiko Aldizkari Ofizial»ean argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean.

**Bigarrena.—*Arauen garapena***

Berrikuntza eta Ekonomi Sustapeneko Foru Sailaren titularrari honako dekretu hau garatzeko beharrezkotzat jo ditzan xedapen guztiak emateko ahalmena eskuetsi zaio.

**Hirugarrena.—*Aurrekonku-zainpeketa***

Dekretu honen arabera eman daitezkeen laguntzak eta onurak Burutu egitarauaren aurrekontuko zuzkiduraren pentzudan egingo dira, jarduketa estrategikoak (720.109), hau da, 443.00/720.109/08/02 zenbakiko partidan bildu dena, eta aginduaren zenbakia 01/2004/6852 da (ehun eta berrogaita hamar mila euro, 150.000,- euro) eta Berritek egitarauaren aurrekontuko zuzkiduraren pentzudan, Berrikuntzaren Sustapena, 743.00/720.102/08/04 zenbakikoan eta 01/2004/6956 agindua (milioi bat ehun eta berrogeita hamar mila euro, 1.150.000 euro), aurrekontuetako eskuragarritasunaren arabera egin daitezkeen aldarazpenak gorabehera.

Bizkaiko Foru Aldundiaren eta bere foru erakunde autonomoen hitzarmenak egiteko eta herri laguntzak eta diru-laguntzak emateko arloaren barruko gastua fiskalizatzeko Araudia onetsi duen ekainaren 5eko 105/2001 Foru Dekretuaren 15. artikuluan ezarri denarekin bat, aurrekontuko kreditua gehitu egin daiteke foru aginduaren bidez. Dena dela, gehikuntza hori gehienez foru dekretu honetan eman den kredituaren %20 izango da, eta 90.000,00 eurotik beherakoa izango da. Kreditua gehitzeko foru agindua Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

Aipaturiko partidetan dagoen aurrekontu-zuzkiduraren ondorioz, laguntza eskariak zuzkidura hori gainditzen duenean, diru-laguntza-portzentaiak murriztu ahal izango dira eta, nolanahi ere, dauden ekonomi baliakizunek ahalbidetzen dituzten sustapenerako laguntzak baino ezingo dira egitasmo honetan sartu.

Bilbon emana, 2004ko otsailaren 24an.

Berrikuntza eta Ekonomi Sustapeneko foru diputatua,
JOSE ANTONIO CAMPOS GRANADOS

Ahaldun Nagusia,
JOSE LUIS BILBAO EGUREN

DISPOSICIONES FINALES

**Primera.—*Entrada en vigor***

El presente Decreto Foral entrará en vigor al día siguiente de su publicación en el «Boletín Oficial de Bizkaia».

**Segunda.—*Desarrollo normativo***

Se faculta al titular del Departamento de Innovación y Promoción Económica a dictar cuantas disposiciones considere necesarias para el desarrollo del presente Decreto.

**Tercera.—*Consignación presupuestaria***

Las ayudas y beneficios que puedan otorgarse con arreglo al presente Decreto, se efectuarán con cargo a la dotación presupuestaria del Programa Burutu, Actuaciones Estratégicas (720.109) recogida en la partidas 443.00/720.109/08/02 número de orden 01/2004/6852 (ciento cincuenta mil euros, 150.000 euros) y con cargo a la dotación presupuestaria del programa Berritek, Impulso de la Innovación 743.00/720.102/08/04 número de orden 01/2004/6956 (un millón ciento cincuenta mil euros, 1.150.000 euros), sin perjuicio de que puedan ser modificadas en función de las disponibilidades presupuestarias.

De acuerdo con lo establecido en el artículo 15 del Decreto Foral 105/2001, de 5 de junio, por el que se aprueba el Reglamento de fiscalización del gasto en materia de celebración de convenios y de concesión de ayudas y subvenciones públicas de la Diputación Foral de Bizkaia y sus Organismos Autónomos Forales, el crédito presupuestario podrá ser incrementado mediante Orden Foral en tanto no se supere el 20% del crédito establecido en este Decreto Foral o sea inferior a 90.000,00 euros. La orden foral de incremento de crédito será publicada en el «Boletín Oficial de Bizkaia».

En virtud de la dotación presupuestaria existente en la citada partida, los porcentajes de subvención se podrán ver reducidos si la demanda de ayuda supera dicha dotación, no obstante únicamente podrán acogerse al amparo de este Plan las ayudas a la promoción que permitan las disponibilidades económicas existentes.

Dado en Bilbao, a 24 de febrero de 2004.

El Diputado Foral de Innovación y Promoción Económica
JOSE ANTONIO CAMPOS GRANADOS,

El Diputado General,
JOSE LUIS BILBAO EGUREN

**I. ERANSKINA**

**I. Titulua**

AINTZAT HARTZEN DIREN JARDUEREN ZERRRENDA

Dekretu honen 2. artikuluan adierazitakoaren arabera, enpresek onuradun izateko bete behar dituzten beharkizunetariko bat da haien ekonomi jarduera nagusia E.I.S.N.-93ko (abenduaren 18ko 1992/1560. E.D.) honako epigrafeetakoren baten sartuta egotea:

C atala. *Industria erauzkariak.*

D atala. *Manufakturen industria.*

E atala. *Ur, gas eta energia elektrikoaren ekoizpena eta banaketa.*

*F atala.* *Eraikuntza.*

G atala. *Aipaturiko epigrafea baino ez.*

50.20 epigrafea.—Motoredun ibilgailuen mantenimendu eta konponketa.

50.301 epigrafea.— Motoredun ibilgailuen ordezkoak eta aldagailuak handizka salerostea

51. epigrafea.—Merkataritzako bitartekoak handizka salerostea. Motoredun ibilgailuak eta motozikletak izan ezik

I atala. *Aipaturiko epigrafeak baino ez.*

60.24 epigrafea.—Merkatugaiak errepidetik garraiatzea

61. epigrafea.—Kabotajeko itsas garraioa eta barnenabigaziokoa.

**ANEXO I**

**Título I.**

RELACIÓN DE ACTIVIDADES CONSIDERADAS

De acuerdo con lo indicado en el artículo segundo de este Decreto uno de los requisitos que deben cumplir las empresas para beneficiarias es que su actividad económica principal se halle encuadrada en alguno de los siguientes epígrafes de la C.N.A.E.-93 (RD. 1560/1992 de 18 de diciembre) :

Sección C. *Industrias extractivas.*

Sección D. *Industria manufacturera.*

Sección E. *Producción y distribución de energía eléctrica, gas y agua.*

Sección F. *Construcción.*

Sección G. *Sólo los epígrafes señalados.*

Epígrafe 50.20.—Mantenimiento y reparación de vehículos de motor

Epígrafe 50.301.—Comercio al por mayor de repuestos y accesorios de vehículos de motor

Epígrafe 51.—Comercio al por mayor e intermediarios del comercio. Excepto de vehículos de motor y motocicletas

Sección I. *Sólo los epígrafes señalados.*

Epígrafe 60.24.- Transporte de mercancías por carretera

Epígrafe 61.—Transporte marítimo de cabotaje y por vías de navegación interior

63. epigrafea.—Garraioei erantsitako jarduerak; bidai agentzien jarduerak

64. epigrafea.—Postak eta Telekomunikazioak.

K. atala. *(Aipaturiko epigrafeak baino ez).*

71. epigrafea.- Makineria eta ekipoak, efektu pertsonalak eta etxeko tresnak langilerik gabe alokatzea

72. epigrafea.—Jarduera informatikoak.

73. epigrafea.—Ikerkuntza eta Garapena.

74. epigrafea.—Beste jarduera enpresarial batzuk

O atala. *(Aipaturiko epigrafeak baino ez).*

92.11. epigrafea.—Zinema eta bideogintzako ekoizpena.

92.12. epigrafea.—Filmeen banaketa.

92.2. epigrafea.—Irrati eta telebistako zerbitzuak.

Salbuespenez, interes nabarmena duten proiektuak direnean, aurreko epigrafeetan agertzen direnez bestelako jarduera nagusia duten enpresak ere onuradun izan ahalko dira, Berrikuntza eta Ekonomi Sustapeneko foru diputatuaren ebazpen arrazoituaren bitartez.

**II. titulua**

ERAKUNDE KUDEATZAILEA

A. *Erakunde kudeatzailea, Centro de Diseño Industrial, S.A.*

1. Centro de Diseño Industrial, SA (DZ) sozietate publikoa izango da honako foru dekretu honen 3.2. atalearen, hau da, zaintza teknologikoaren, hirugarren artikuluan ezarri dena betez emango diren laguntzak kudeatuko dituen erakundea.

2. Bada 3.2. atala, Zaintza teknologikoaren hirugarren artikuluan ezarri diren onurak hartuko dituzten enpresei funtsa publikoak ematea eta banatzea erakunde kudeatzailke horren erantzukizuna izango da.

3. Centro de Diseño Industrial, SA (DZ) erakunde kudeatzaileak Bizkaiko Foru Aldundiaren Berrikuntza eta Ekonomi Sustapen Sailaren izen eta eskuordetzan jardungo du, era sail hori da, ondore guztietarako, plan honetan ezarri diren laguntzak ematen dituena.

B. *Erakunde kudeatzailearen funtzioak*

Centro de Diseño Industrial, S.A.k (DZ), erakunde kudeatzailea den neurrian, ondoko funtzio hauek beteko ditu:

1. Berrikuntza eta Ekonomi Sustapen Sailari dekretu honen 3.2. atalaren hirugarren artikuluari atxikita dauden espedienteen ebazpena proposatzea.

2. Enpresa onuradunei, ezarri diren beharkizunak betez, jaso diren fondoak ematea

3. Pertsona aholkulari homologatuen lana koordinatzea eta gainikustea eta horiek hartu dituzten betebeharrak betetzen dituztela zaintzea.

4. Fondoen egilespena mugatzen duten baldintzak benetan betetzen diren edo ez aztertu eta, hala balegokio, egiaztatzea.

5. Jasotako fondoen erabilera frogatu Berrikuntza eta Ekonomi Sustapen Sailaren aurrean eta, hala belegokio, enpresa onuradunek aurkeztutako frogagiria ematea.

6. Berrikuntza eta Ekonomi Sustapen Sailari, hiruhilero, laguntza jaso duten jarduketen bilakaera eta emaitzei buruzko txostena aurkeztea. Halaber, 2005eko martxoan, amaierako txostena aurkeztea.

7. Emakida egin duen erakundeak fondo horien kudeaketaren nondik-norakoa jakiteko egin ditzakeen froga-jarduketak onartzea; halaber, Ogasuna ega Finantza Sailak egingo duen finantza kontrolaren eta Kontu Publikoen Euskal Auzitegiaren prozedura fiskalizatzaileen pean jartzea.

Epígrafe 63. Actividades anexas a los transportes; Actividades de agencias de viajes

Epígrafe 64.—Correos y Telecomunicaciones

Sección K. *(Sólo los epígrafes señalados).*

Epígrafe 71. Alquiler de maquinaria y equipo sin operario, de efectos personales y enseres domésticos

Epígrafe 72.—Actividades Informáticas

Epígrafe 73.—Investigación y Desarrollo

Epígrafe 74. Otras actividades empresariales

Sección O. *(solo los epígrafes señalados).*

Epígrafe 92.11.—Producción cinematográfica y de vídeo.

Epígrafe 92.12.—Distribución de películas.

Epígrafe 92.2.—Servicios de radio y televisión.

Excepcionalmente, en el caso de proyectos de notable interés, podrán considerarse como beneficiarias empresas cuya actividad principal no se encuadre en los epígrafes anteriores, mediante resolución motivada del Diputado Foral de Innovación y Promoción Económica.

**Título II**

ENTIDAD GESTORA

A. *Entidad Gestora Centro de Diseño Industrial, SA*

1. La sociedad pública Centro de Diseño Industrial, SA (DZ) actuará como entidad gestora de las ayudas que se otorguen de acuerdo a lo establecido en el artículo tercero apartado 3.2 Vigilancia tecnológica del presente Decreto Foral.

2. A estos efectos la entrega y distribución de los fondos públicos a las empresas que se acojan los beneficios del artículo tercero apartado 3.2. Vigilancia tecnológica se efectuará a través de la entidad gestora.

3. La entidad gestora Centro de Diseño Industrial, SA (DZ) actuará en nombre y por cuenta del Departamento de Innovación y Promoción Económica de la Diputación Foral de Bizkaia quien es el concedente a todos los efectos de las ayudas establecidas en el presente plan.

B. *Funciones de la entidad gestora*

Centro de Diseño Industrial, SA (DZ), como entidad gestora, realizará las siguientes funciones.

1. Proponer al Departamento de Innovación y Promoción Económica la resolución de los expedientes acogidos a los beneficios del artículo tercero apartado 3.2. del presente decreto.

2. Entregar a las empresas beneficiarias los fondos recibidos de acuerdo a los requisitos establecidos.

3. Coordinar y supervisar la labor de las personas consultoras homologadas y velar por el cumplimiento de las obligaciones por ellas contraidas.

4. Analizar y verificar, en su caso, el cumplimiento y efectividad de las condiciones o requisitos determinantes para su otorgamiento.

5. Justificar la aplicación de los fondos recibidos ante el Departamento de Innovación y Promoción Económica y, en su caso, entregar la justificación presentada por las empresas beneficiarias.

6. Presentar ante el Departamento de Innovación y Promoción Económica trimestralmente un informe sobre la evolución y el resultado de las actuaciones apoyadas y un informe final en marzo de 2005.

7. Someterse a las actuaciones de comprobación que respecto de la gestión de dichos fondos, pueda efectuar la entidad concedente y a las de control financiero que realice el Departamento de Hacienda y Finanzas, así como a los procedimientos fiscalizadores del Tribunal Vasco de Cuentas Públicas.

**III. titulua**

TRAMITAZIO PROZEDURA ETA DIRU-LAGUNTZEN ORDAINKETA

A) *Prozedura*

1. Eskabideak jaso ondoren, osorik beteta ez badaude edo beharrezko dokumentazioa ez badute, dagokion enpresari 10 eguneko epea emango zaio hutsunea bete edo beharrezko agiriak erants ditzan, honelaxe egiten ez badu eskabideari uko egiten diola ulertuko dela jakinaraziz eta besterik gabe espedientea artxibatuz. Administrazioa, gainera, ez dago eskabide honi buruzko berariazko ebazpenik ematera behartuta, urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak aldarazitako Herri Administrazio Araubidearen eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 1992/30 Legeko 71.1 eta 42.1 artikuluetan xedaturikoaren arabera.

2. Eskabideak Berrikuntzako eta Ekonomi Sustapeneko Zuzendaritza Nagusiak tramitatuko ditu, eta Berrikuntza eta Ekonomi Sustapeneko foru diputatuak ebatziko ditu, aipaturiko Zuzendaritza Nagusiaren proposamena aintzat harturik emango dituen berariazko eta banakako ebazpenen bidez.

Ekintzen onuradunei dagokien ebazpenean baldintza bereziak ezarri ahalko dira, ekintzen izaera bereziagatik edo bestelako arrazoiengatik egokitzat jotzen denean, Dekretu honetan xedatutakoa kasu bakoitzari aplikatu eta egokitzeko.

3. Eskabidea aurkezten denetik eta laguntzen tramitazioa, aintzatespena eta ordainketa burutu bitartean, beharrezko betekizuna izango da eskatzaileak bere zerga-betebeharrak, Gizarte Segurantzakoak eta herri-zuzenbidezko gainontzekoak delako egunera arte beteta dituela egiaztatzea.

Horretarako, diru-laguntza eskuetsi eta ordaindu baino lehen, Berrikuntza eta Ekonomi Sustapen Sailak Gizarte Segurantzaren ziurtagiria eskatuko dio eskatzaileari.

Era berean, eskatzailearen egoera fiskalari buruzko ziurtagiria eskatuko dio Ogasun eta Finantza Sailari, eta ziurtagiri horretan ordaindu gabeko eta geroratu gabeko zerga-zorrak daudela agertuko balitz, interesatuari, ahal izanez gero, 15 egunetako epean bere egoera araupetu eta hala egin duela egiaztatzen duen Ogasuna eta Finantzen ziurtagiria aurkez lezala eskatuko lioke.

Onuradunak, dagozkion ziurtagirien bidez, bere zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzakoak bete dituela egiaztatzen ez badu, bidezkoa izango da eskabidea ezeztea edo, hala badagokio, eskuetsitakoaren galera adieraztea.

4. Diru-laguntzarako eskabidearen ebazpenak amaiera ematen dio administrazio-bideari eta doakienek, horren kontra eta bide beretik, birjarpenezko ahalgo-errekurtsoa jarri ahal izango dute Berrikuntza eta Ekonomi Sustapeneko foru diputatuaren aurrean. Hala ere, egokiesten duten beste edozein errekurtso jarri ahalko dute.

5. Dekretu honen babesean egindako eskabideak ebazteko gehienezko epea 2004ko abenduaren 30ean amaituko da.

Eskudun organoak aurkeztu diren eskabideetako bakoitzari dagokion berariazko ebazpena eman behar badu ere, delako ebazpena eman eta jakinarazteko epea halakorik egin gabe igarotzen bada, administrazio isiltasuna dela medio, eskabidea ez dela onartua izan ulertuko da, 30/1992 Legearen 44. artikuluaren arabera.

6. Berrikuntza eta Ekonomi Sustapen Sailak proiektatu edo justifikatu diren gastuak antzerako lanen batazbesteko kostuaren aldean gehiegizkoak direla baderitzo, oinarri subentzionagarria gutxitu ahalko du gastu egoki eta proportzioduntzat jotzen denari dagokion zenbatekoraino.

7. Administrazio prozedurari dagokionez, dekretu honetan aurreikusten ez den guztian, urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak aldarazitako Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 92/1930 Legea ezarriko da.

8. Aurkeztutako eskabideetarik aurrekontu-egitarau honetarako zainpetutako aurrekontu-eskuragarritasunen araberako eskabide kopurua bakarrik hautatu ahal izango da, Hirugarren Azken Xedapenean ezarririkoarekin bat etorririk.

**Título III.**

PROCEDIMIENTO DE TRAMITACIÓN Y PAGO DE SUBVENCIONES

A. *Procedimiento*

1. Recibidas las solicitudes, si éstas no vinieran cumplimentadas en todos sus términos, o no fueran acompañadas de la documentación relacionada en el artículo octavo, se requerirá a la empresa interesada, para que en el plazo de 10 días, subsane la falta o acompañe los documentos preceptivos, con indicación de que, si así no lo hiciera, se le tendrá por desistida de la correspondiente solicitud mediante resolución dictada al efecto, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 71 de la ley 30/1992, de 26 de noviembre de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, modificada por la Ley 4/99 de 13 de enero.

2. Las solicitudes serán tramitadas por la Dirección General de Innovación y Promoción Económica, del Departamento de Innovación y Promoción Económica, y resueltas por el Diputado Foral del mismo, a propuesta de la referida Dirección General.

En la resolución de otorgamiento, podrán establecerse condiciones particulares cuando, por la naturaleza específica de los proyectos, u otras circunstancias concurrentes, se estime conveniente, con el fin de aplicar y adecuar a cada caso lo dispuesto en el presente Decreto.

3. Será requisito necesario desde la presentación de la solicitud y durante todo el proceso de prestación del servicio que la solicitante esté al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones tributarias, para con la Seguridad Social, y demás de derecho público.

A tal efecto, el Departamento de Innovación y Promoción Económica requerirá a la solicitante, la aportación del correspondiente Certificado de la Seguridad Social.

Asimismo solicitará del Departamento de Hacienda y Finanzas, certificación acreditativa de su situación fiscal, y si en ésta resultara la existencia de deudas tributarias, pendientes y no aplazadas, requerirá a la interesada, para que en el plazo de 15 días si fuera posible regularice su situación y aporte el Certificado de Hacienda y Finanzas que acredite este extremo.

Procederá la desestimación de la solicitud, si la solicitante no hubiera acreditado el cumplimiento de sus obligaciones tributarias y demás de derecho público y para con la Seguridad Social, mediante la aportación de los correspondientes certificados.

4. La Resolución de la solicitud agota la vía administrativa y contra la misma las interesadas podrán interponer en esta misma vía Recurso Potestativo de Reposición ante el Diputado Foral de Innovación y Promoción Económica, sin perjuicio de que pueda interponer cualquier otro que considere pertinente.

5. El plazo máximo para la resolución de las solicitudes formuladas al amparo del presente Decreto será el 30 de diciembre de 2004.

Sin perjuicio de la obligatoriedad del órgano competente de dictar resolución expresa en todas las solicitudes presentadas, si vencido el plazo de resolución y notificación y ésta no se hubiese dictado expresamente, se entenderá desestimada la solicitud por silencio administrativo, conforme al artículo 44 de la Ley 30/92.

6. Si el Departamento de Innovación y Promoción Económica considera que el presupuesto de gasto, es excesivo en comparación con el coste medio de gastos de análoga naturaleza podrá reducir la base subvencionable, en la cuantía correspondiente, a lo que se considera un gasto ajustado y proporcionado.

7. En lo no previsto en el presente Decreto en cuanto a procedimiento administrativo, será de aplicación la Ley 30/92 de 26 de noviembre de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas, y del Procedimiento Administrativo Común, modificada por la Ley 4/99 de 13 de enero.

8. De las solicitudes presentadas únicamente podrán ser seleccionadas tantas como permitan las disponibilidades presupuestarias consignadas en la partida para este plan, de conformidad con lo establecido en la Disposición Final Tercera.

B. *Jarraipena*

1. Dekretu honetan aurreikusitako laguntzen onuradunek agiri bidez frogatu beharko dute diruz lagundutako ekintzak burutu eta haiek eskuratzeko baldintzak bete direla, dekretu honetan eta emateko foru aginduan aurrikusitako moduan, hala nola edozein unetan Berrikuntza eta Ekonomi Sustapen Sailak hala eskatuz gero.

Dekretu honetan araupetutako laguntzak emakidatzeko aintzakotzat hartu diren baldintzak aldatuz gero, haiek emakidatzeko ebazpena ere aldatu egin ahal izango da.

C. *Ez-betetzea*

1. Honako dekretu honetan eta gainontzeko arau erabilgarrietan ezarritako beharkizunak edo, hala balegokio, ebazpenean ezar daitezen baldintzak ez betetzeak delako ebazpena ezeztatzea ekarriko du, bai eta jasotako diru-kopuruak eta, bidezko denean, dagozkien legezko korrituak itzultzeko beharra ere, Bizkaiko Lurralde Historikoaren Araubide Juridikoari buruzko 10/1997 Foru Arauko 172.etik 176.era bitarteko artikuluetan xedaturikoaren arabera, eta dagozkion legezko ekintzen eta zigorren kalterik gabe. Aipaturiko diru-kopuruak sarrera publikotzat joko dira legezko eragin guztietarako.

2. Ez-betetzea gertatzen denean, ondoko prozedura izango da erabiligarri:

a) Prozedurari hasiera ematea eta hura tramitatzea Berrikuntzako eta Ekonomi Sustapeneko zuzendari nagusiari dagokio, ebazpena Berrikuntza eta Ekonomi Sustapeneko foru diputatuak emango duela.

b) Berrikuntzako eta Ekonomi Sustapeneko zuzendari nagusiak prozedurari hasiera eman zaiola eta horretarako zergatiak jakinaraziko dizkio enpresari, beronek egokitzat jo ditzakeen alegazioak egiteko 15 egunetako epea emanez. Prozedurari hasiera emateak, kasua balitz, eginkizun dauden ordainketen etendura ekarriko luke.

c) Alegazioak jaso ondoren, edo horretarako epea haiek egin gabe igaroz gero, ebazteko proposamenaz irekitako espedientea helaraziko zaio Berrikuntza eta Ekonomi Sustapeneko foru diputatuari.

d) Berrikuntza eta Ekonomi Sustapeneko foru diputatuaren ebazpenak azkena emango dio prozedurari. Hark ez-betetzeren bat izan dela adierazten badu, dagokion iritzia azalduko du, diru-laguntzaren galera eta diru-kopuruak eta bidezkoak izan daitezen legezko korrituak itzultzeko beharra adieraziz, halakoetan dagozkion legezko ekintzen eta zehapenen kalterik gabe.

3. Artikulu honetan araupetzen denaren arabera aplikatu ahal diren arauak ez betetzeagatik emandako diru-laguntzak itzultzeko prozedura ebazteko gehienezko epea 6 hilabetekoa izango da, hasten denetik zenbatuta.

D. *Bateraezintasunak*

Dekretu honen bidez araupeturiko diru-laguntzak erakunde publiko nahiz pribatuetatik eratorritako beste edozeinekin bateraezinak izango dira, egitate subentzionagarri berberei badagozkie.

Hala ere, onuradunek horrelako eskabiderik egin edo erakunde publiko nahiz pribatuetatik diru-laguntzaren bat jasotzen badute, berorren berri eman beharko diote Berrikuntza eta Ekonomi Sustapen Sailari.

E. *Arautegi Orokorra*

Dekretu honetan azaltzen diren diru-laguntzak, bertan xedaturikoak eta emateko foru aginduetan ezar daitezen gainerako baldintzek araupetuko dituzte, bai eta Bizkaiko Lurralde Historikoko diru-laguntza eta laguntza publikoei buruzko arautegi orokorrak ere. Berau, funtsean, Bizkaiko Lurralde Historikoaren Ekonomi Araubideari buruzko 10/1997 foru arauko 92.etik 100.era eta 172.etik 176.era bitarteko artikuluek osatuta dago.

B. *Seguimiento*

1. Las beneficiarias de las ayudas previstas en el presente Decreto, deberán justificar documentalmente la realización de las actividades subvencionadas, así como el cumplimiento de las condiciones a que se sujeta su obtención, en la forma prevista en el presente Decreto, en la Orden Foral de concesión, así como en cualquier momento, a requerimiento del Departamento de Innovación y Promoción Económica.

La alteración de las condiciones tenidas en cuenta para la concesión de las ayudas reguladas en el presente Decreto podrá dar lugar a la modificación de la resolución de concesión de las mismas.

C. *Incumplimiento*

1. El incumplimiento de los requisitos establecidos en el presente Decreto y demás normas aplicables, así como las condiciones que en su caso se establezcan en la resolución, dará lugar a la revocación de la misma, y a la obligación de reintegrar las cantidades percibidas, así como los intereses legales correspondientes en los casos que proceda, conforme a lo dispuesto en los artículos 172 a 176 de la Norma Foral 10/97 de Régimen Económico del Territorio Histórico de Bizkaia, sin perjuicio de las acciones legales y sanciones que correspondan. Las referidas cantidades tendrán la consideración de ingresos públicos a todos los efectos legales.

2. En los supuestos de incumplimiento, el procedimiento aplicable será el siguiente:

a) El procedimiento se iniciará y tramitará por el Director General de Innovación y Promoción Económica, y se resolverá por el Diputado Foral de Innovación y Promoción Económica.

b) El Director General de Innovación y Promoción Económica comunicará a la empresa la iniciación del procedimiento y las causas que lo fundamenten, concediendo un plazo de 15 días para que formule las alegaciones que estime oportunas. La iniciación del procedimiento suspenderá en su caso, los pagos que aún queden pendientes.

c) Recibidas las alegaciones, o transcurrido el plazo sin que se hubieran realizado, se remitirá el expediente instruido con propuesta de resolución al Diputado Foral de Innovación y Promoción Económica.

d) La resolución del Diputado Foral de Innovación y Promoción Económica pondrá fin al procedimiento. Si la misma estimase la existencia de incumplimiento, realizará el pronunciamiento correspondiente relativo a la declaración de pérdida de la subvención, y obligación de reintegro de cantidades, sin perjuicio de las acciones legales, y sanciones que en su caso correspondan.

3. El plazo máximo para resolver el procedimiento para la devolución de las ayudas concedidas por incumplimiento de las normas aplicables, regulado en este artículo, será de 6 meses a partir de la fecha de su iniciación.

D. *Incompatibilidades*

Las ayudas otorgadas al amparo del presente Decreto serán incompatibles con cualesquiera otras provenientes de otros Organismos públicos o privados, cuando correspondan a los mismos hechos subvencionables.

En cualquier caso, las solicitantes tendrán la obligación de comunicar al Departamento de Innovación y Promoción Económica cualquier solicitud u obtención de subvención o ayuda referida a los mismos hechos.

E. *Normativa General*

Las ayudas a que se refiere el presente Decreto, se regirán, por lo dispuesto en el mismo, y restantes condiciones que se establezcan en las Ordenes Forales de otorgamiento, así como por la normativa general sobre subvenciones y ayudas públicas del Territorio Histórico de Bizkaia, constituida fundamentalmente por los artículos 92 a 100 y 172 a 176 de la Norma Foral 10/97 de 14 de octubre, de Régimen Económico del Territorio Histórico de Bizkaia.

**II. ERANSKINA**

ABALAREN EREDUA

_______________________________________, erakundeak, jakinarazpenak egitearen ondoreetarako helbidea _____________ ko _____________ duenak, _____________ p.k., eta horren izenean _____________, honako dokumentu atzealdean egin den eskuordetzaren egiaztapenean frogatzen den bezala ekintza honetan erakunde hori eskuordetzeko ahalmen nahikoa duenak, ondokoa

ABALATU DU

_____________ enpresa, _____________ zenbakiko IFK duena, Bizkaiko Foru Aldundiari dagokionez eta _________ euroko muntan, e-baltzuak plana 2004rako araupetu duen ___/2004 Foru Dekretuan ezarri dena betez ematen den laguntza aurreratuaren bermea izan dadin, hain zuzen ere delako dekretu horren zortzigarren artikuluaren 1.3. idatz-zatian ezarri dena betez.

Abal hau era solidarioan ematen da printzipalari dagokionez eta berariaz egiten zaio uko bereizketa-onurari eta, aldi berean, konpromisoa hartzen da Bizkaiko Foru Aldundiak lehen agindeia egiten duenean bertan ordiantzeko betearazpidetzako izaerarekin, ____/2004 Foru Dekretuan eta horrekin bateragarria den legezko arautegian ezarri dena betez.

Abal hau indarrean egongo da harik-eta Bizkaiko Foru Aldundiak edo horren izenean legez gaituta dagoenak abala kitatzeko edo itzultzeko baimena eman arte.

Honako abal hau behean azaltzen den egunean bertan inskribatu da Abalen Erregistro Berezian, ___________ zenbakiarekin.

_________________n, (data).

(I-316)

**ANEXO II**

MODELO DE AVAL

La entidad _______________________________________, con domicilio en _____________ a efectos de notificaciones en _____________ de _____________ c.p _____________ y en su nombre _____________con poderes suficientes para obligarle en este acto, según resulta de la verificación de la representación efectuada al dorso del presente documento

AVALA

A la empresa con C.I.F. número _____________, ante la Diputación Foral de Bizkaia, por la cantidad de _________ euros como garantía de la ayuda anticipada al amparo del Decreto Foral número ___/2004 de ___ de ___ que regula el plan e-baltzuak, de acuerdo con lo establecido en el artículo octavo, apartado 1.3 del citado decreto.

Este aval se otorga solidariamente respecto al obligado principal, con renuncia expresa al beneficio de exclusión y con compromiso de pago al primer requerimiento de la Diputación Foral de Bizkaia y con carácter ejecutivo con sujeción a los establecido en el Decreto Foral número ____/2004 y normativa legal concordante.

Este aval permanecerá vigente hasta que la Diputación Foral de Bizkaia, o quien en su nombre sea habilitado legalmente para ello, autorice su cancelación o devolución.

El presente aval ha sido inscrito en esta misma fecha en el Registro Especial de Avales con el número ___________.

En ___________,(fecha).

(I-316)

**OTSAILAREN 24KO 21/2004 FORU DEKRETUA, 2004 URTERAKO E-BALTZUAK PLANA ARAUTZEN DUENA, MAIATZAREN 24KO 1052/2004 FORU AGINDUA GARATZEN DUENA.**

**Zioen Azalpena**

Otsailaren 24ko 21/2004 Foru Dekretuaren Azken Xedapenaren Bigarren Atalean erabakitakoaren arabera, zeinaren bidez Berrikuntza eta Ekonomi Sustapen Sailaren titularrari aipaturiko dekretuaren garapenerako beharrezko diren xedapenak eman ditzan baimena ematen baitzaio, eta beronetan adierazitako ahalmenak baliaraziz,

**Xedatzen dut**

Lehen artikulua:

Hirugarren artikuluaren ondoreetarako, Egitate Diruz Lagungarria, 3.1. idatz-zatia, Negozio elektronikoa, honako hau ulertuko da:

1.1. Ez dagoela independentziarik eskaera egiten duen enpresaren eta enpresa edo entitate espezializatuaren artean, biak enpresa talde bereko partaideak badira edo elkartutako enpresen izaera badute. Hori guztia Europako Komisioaren (CE) 1725/2003 Arautegian ezarritakoaren arabera, non Nazioarteko Kontabilitate Arau batzuk onartu baitira.

1.2. Negozio elektroniko baten ezarpenak talde bateko edo elkartutako enpresekiko atal berdinen bat badu, atal komun hori garapen bakar bezala ulertuko da.

1.3. Ez da sarean eskabideen sistemaren ezarpentzat hartuko posta elektroniko bati atxikitako eskabideen formulario bat egiten bada.

**ORDEN FORAL Nº 1052/2004 DE 13 DE MAYO POR LA QUE SE DESARROLLA EL DECRETO FORAL Nº 21/2004 DE 24 DE FEBRERO POR EL QUE SE REGULAN PARA 2004 EL PLAN E-BALTZUAK**

**Exposición de Motivos**

De conformidad con lo establecido en la Disposición Final Segunda del Decreto Foral Nº 21/2004, de 24 de febrero, que faculta al titular del Departamento de Innovación y Promoción Económica a dictar las disposiciones necesarias para el desarrollo del citado Decreto, y en uso de las facultades conferidas en el mismo,

**Dispongo**

Artículo Primero:

A los efectos del artículo tercero Hecho Subvencionable, apartado 3.1. Negocio electrónico se entenderá:

1.1. Que no existe independencia entre la empresa solicitante y la entidad o empresa especializada cuando ambas pertenezcan al mismo grupo de empresas o tengan la consideración de empresas asociadas, de acuerdo con lo establecido en el Reglamento (CE) nº 1725/2003 de la Comisión Europea de 29 de septiembre de 2003 por el que se adoptan determinadas Normas Internacionales de Contabilidad.

1.2. Cuando una implantación de negocio electrónico tenga partes comunes a varias empresas de un grupo o asociadas, se entenderá dicha parte común como un único desarrollo.

1.3. No se entenderá implantación del sistema de pedidos en la red cuando se trate de un formulario de pedidos vinculado a una dirección de correo electrónico.

1.4. Ez da intranet/extranet delakoaren garapen proiektutzat hartuko, proiektu horren xedea, enpresaren lokalen barruan, sare lokalen (LAN - WAN) ezarpena, hobekuntza edo hedapena bada.

1.5. Proiektuaren garapenean enpresaren berezko prozesuen (administrazio eta merkataritzako prozesuak, dokumentazioaren kudeaketa, fabrikazioa, biltegi kudeaketa, proiektuen kudeaketa, ERP...) barne kudeaketarako xedatzen diren tresna informatikoak erosi, pertsonalizatu edo eguneratzea sartzen bada, TCP/IP komunikazio protokoloei jarraiki, gainerakoei tresna horiek egokitzeari dagozkion kostuak negozio elektronikoa ezartzeko irtenbide elektronikoaren garapen kostutzat hartuko dira**,** baina ondoko kasu hauetan soilik:

1. Enpresatik at dauden gainerakoekiko komunikazioa (bezeroak, hornitzaileak, erakundeak…)
2. Urrutiko konexioa
3. Enpresaren zenbait egoitzen arteko konexioa

1.6. Ekipamenduetako dirulaguntzak jasotzeko moduko inbertsioak negozio elektronikozko proiektuaren ez besteren garapenari loturikoak izango direla. Negozio elektronikozko proiektuan kostu osoen eta ekipamendu inbertsioen arteko oreka egokia izan beharko da, ezaugarri berdinak dituzten proiektuekin alderatuta.

1.7 Web–orriak kokatzeko gastuak enpresatik kanpoko tokietan (hosting-housing) eta telefono edota internet zerbitzuen hornitzaileen (ISP) gastuak ez dira negozio elektronikozko proiektuen kostutzat hartuko.

1.4. No se entenderá como proyecto de desarrollo de la intranet/extranet cuando dicho proyecto se trate de una implantación, mejora o ampliación de redes de área local (LAN – WAN) en el interior de los locales de la empresa.

1.5. Cuando en el desarrollo del proyecto se incluya la adquisición, personalización o actualización de herramientas informáticas destinadas a la gestión interna de los procesos propios de la empresa (administrativos, comercial, gestión de documentación, fabricación, gestión de almacén, gestión de proyectos, ERP…) se entenderán costes de desarrollo de la solución informática para la implantación del negocio electrónico únicamente los correspondientes a la adaptación de estas herramientas para la apertura a terceras partes siguiendo protocolos de comunicación TCP/IP en los siguientes casos:

1. Comunicación con terceras partes ajenas a la empresa (clientes, proveedores, instituciones…)
2. Conexión remota
3. Conexión entre diferentes sedes de la empresa

1.6. Que como inversiones subvencionables en equipamiento se entenderán aquellas ligadas exclusivamente al desarrollo del proyecto de negocio electrónico. Se entenderá que en el proyecto de negocio electrónico deberá existir una adecuada proporción entre los costes totales y las inversiones en equipamiento, en comparación con proyectos de análoga naturaleza.

1.7. Que no se entenderá que forman parte de los costes del proyecto de negocio electrónico los gastos de alojamiento de sitios web en locales ajenos a la empresa (hosting-housing) o de proveedores de servicios telefónicos o de internet (ISP).

Bigarren artikulua:

Zortzigarren artikuluko 1.3. idatz-zatian ezarritakoaren arabera, proiektua bukatu baino lehen diru laguntzaren bat jasotzen duten enpresek proiektuaren azken memoria aurkeztu beharko dute; beti ere lanak bukatu ondoren eta 2005ko martxoaren 31 baino lehen. Horrekin batera, sortu diren gastu eta inbertsioen fakturak, eta horiek ordaindu izanaren egiaztagiriak aurkeztu beharko dituzte.

Hirugarren artikulua:

Honako foru agindu hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean bihurtuko da jadaneko.

Bilbon, 2004ko maitzaren 13an.

Artículo Segundo:

De acuerdo con lo establecido en el artículo octavo apartado 1.3. Las empresas que perciban la ayuda antes de la finalización del proyecto, deberán presentar a la finalización de los trabajos, y siempre con anterioridad el 31 de marzo de 2005, la memoria final del proyecto, las facturas de los gastos e inversiones ocasionados, así como los justificantes de pago de los mismos.

Artículo Tercero:

La presente Orden Foral entrará en vigor el día el día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial de Bizkaia.

Bilbao, a 13 de mayo de 2004.

Berrikuntza eta Ekonomi Sustapeneko Foru Diputatua.

El Diputado Foral de Innovación y Promoción Económica

Izpta./Fdo.: José Antonio Campos